

20  
6

# Eskualdun Chorien Kantuak





H-67369

AEV

F-71296

29490

## AINTZIN SOLAS

---


Chori gehienak kantari badira, nola ditazke  
« Eskualdun Choriak » ichilik egon?

Choriek hegalak dituztenaz gainian — eta « Eskual-  
dun Choriek » zango arinak, ez dira geldik egonen.


Huna beraz, Eskualdun gaztentzat, kantu chara-  
mela eta dantza piko zombeit.

Ez dira denak hor : gostuaren emaiteko doia. Gose  
handiagoa dutenentzat, badira liburu aberatsagoak,  
har ditzatela.

Ahamen ttipi hau agian izanen da gure gazten  
onetan!



**Kantu Charamelak**



## ESKUALDUN CHORIA

### ERREPIKA

Ai ai ai muthila,  
Chapela gorria,  
Ai ai ai muthila,  
Eskualdun Choria !

1

Garazi-ta Laphurdi, itsas edo mendi,  
Oihan, bazter zelaiak, zabal edo hertsi :  
Eskualdunak badira, berdin zaizkit niri.

2

Girichtino fedea, Eskualdun etchea,  
Gure sort herriaren fermuki zaintzea :  
Lan ederragorikan gaztentzat badea ?

3

Zangoak ditut arin, bihotz alegera ;  
Lagunekin goiz arrats kantuz ari gira,  
Aski goiz jinen baita nigarren dembora !

4

Oihuz diot deneri : « Zatozte gu ganat !  
Bai, zatozte gazteak, ez beha lurrerat.  
Hegalak baditugu, so egin zerurat ! »

## GAZTE ESKUALDUNERI

1

Jainkoak egin nau Eskualduna,  
Ait'amek moldatu fededuna,  
Gaztea naiz eta lerdena  
Dena Jesus onarena.

### ERREPIKA

Bertze batzuk eman dezatela  
Plazeretan higatu duten ahala  
Hogoi urthe dituk, ner' odola,  
Jainkoak beretzat har hezala !

2

Dembora ilhun eta dorpeak  
Doazi aspaldiko urtheak.  
Illumbeen kasatzaileak  
Horra Eskaldun gazteak.

3

Oi Jesus, nere Nausi maitea,  
Zer duzu nahi guk emaitea ?  
Naizena, ni, guzi-guzia,  
Oro naiz oro... zurea.

4

Errege guziek badituzte  
Ondoan, hainitz soldado gazte :  
Gure gaztek, Jesus, zu zauzte,  
Errege harturik maite.

5

Behazu non diren zure haurrak !  
Zuretzat huna heien bulharrak ;  
Zuretako bai gure kharراك,  
Ororen bihotz suharrak.

6

Etsaia orai ager dadila !  
Oldarrez, indar egin dezala !  
Kusiren du azkar dagola,  
Gure zainetan odola...

(BARBIER).

---

# HERRIAREN ALDE

---

## GERNIKAKO ARBOLA

1

Gernikako arbola da bendikatua  
Eskualdunen artean guziz maitatua.  
Eman-ta zabal zazu munduan fruitua :  
Adoratzen zaitugu, arbola saindua.

berriz

2

Mil'urthe inguru da erraiten dutela  
Jaunak jarri zuela Gernikan arbola.  
Zaudet bada chutikan, orai da dembora :  
Eroritzen bazira, arras galdu gira.

berriz

3

Bethiko bizi dadin othoitz egiteko  
Jarri gaitezen denak laster belhauniko :  
Eta bihotzetikan eskatu-ez gero,  
Arbola biziko da orai eta gero...

berriz

## HAURRAK IKAS-AZUE

1

Haurrak ikasazue eskuaraz mintzatzen,  
Ongi pilotan eta oneski dantzatzen...

ERREPIKA

Airefun-Chikitun, arietun laire (lauetan)  
Olé !

3

Gure kantu chaharrak kontserba ditzagun ;  
Aire pollitagogik ez da sortu nehon...

3

Ez ahantz behin ere sort-herri ederra,  
Haren mendiak eta itsaso bazterra...

## GAZTE GAZTE JOAN NINTZAN

1

Gazte gazte joan nintzan herritik kampora ;  
Estranjere aldean pasa det dembora  
Herri alde guzietan toki onak badira,  
Bainan bihotzak dio « Zoaz Eskualherrira ». } berriz

3

Agur, nere bihotzko amacho maitea,  
Laster ethorriko naiz : kontsola zaitea.  
Jaungoikoak nahi du ni urez juaitea ; } berriz  
Ama zertarako da nigar egitea ? }

3

Lur on hunen uztea da nigargarria ;  
Emen gelditzen dira ama-ta herria.  
Urez noa ikastera, bai mundu berria ; } berriz  
Orantche, bai, naizela urrikalgarria.

## ESKUAL-HERRIA GURE AMA DA

1

Lapurdi eta Bachenabarre, Zibero eta Nabarra  
Gipuzko-herri eta Bizkaia, zazpigarrena Alaba !  
Guziek elgar atchik dezagun niholere ahal bāda :  
Aiten kostumak segi ditzagun ukha ez dezagun Ama !

2

Eskual-herrian gaizki gabiltza zorigaitzez aspaldian ;  
Hantche, kastillaz, hemen frantsesez ari gira'solasean ;  
Denen ikhastia gizonak on du, dabilalarik munduan :  
Bainan eskuara ahantzi gabe, beira dezagun buruan.

3

Ala Frantzian nola Espanan, etsai batzu errabian,  
Gure mintzaia galdu beharrez ari dirade lanean :  
Ama utz-eta amaizuna har, gertha litake orduan !  
Geldi gaitezen gu Amarekin: hoberik ez da munduan !

## SOR LEKUA UTZIZ GEROZ

1

Sor lekua utziz geroz ondikotz hala beharrez !  
Jainko ona urrika'du da bethi nere nigarrez :  
Primaderan hasi orduko arbolak estalzen lorez,  
Choritto bat heldu zaut bethi nere herritik hegalez.

3

Nere ganat hain urrundik ethortzean, unhatua,  
Arbolarik hurbilena du bere pauza lekua.  
Aldachka goaren gorenean horra nun den lokhartua :  
Luma pean zango bat eta hegaz pean du burua.

3

Pausa hadi, lo egizak, chori maitea bakean :  
Atzarrea ni hire zain hemen nauk hire aldean,  
Ur chortarekin horra gero papurrik leihon gainean ;  
Bainan gero hango berriez orhoit hadi atzartzean !

4

Choria, lo hagolarik ikharan nagok aldean :  
EZ ahal duk zorigaitza maite nautenen artean !  
Hala baliz, othoi choria, berriz herrirat helzean  
Loretto bat nigar batekin pausazak tomba gainean.

5

Chorittoa joan denean ostoa eror demboran,  
Berritz ethor ez da dien beldurrez nago ikharan :  
Ihiztaria, hartzen baduk nere choria saretan,  
Utzak, othoi, gaichoa libro berriak ekhar ditzadan !

## AGUR BACHENABARRE

ERREPIKA

Agur Bachenabarre,  
Agur sort-herria !  
Agur eta gora Nabarro guzia.  
Larretan bi pharte,  
Bihotzez bat gaude  
Aitoren semeak bethi bizi dire,  
Biba Nabarroa ta Bachenabarre !

1

Zauri bat egin dute etsaiek herrian,  
Muga tzar bat ezarri haurriden artean  
Pharte bat Espainian, bertzea Frantzian,  
Erdaldunen meneko gaude errabian.

2

Jaun Goikoa ez dute nahi ezagutu,  
Gure lege zaharra dute ostikatu  
Bainan gure odola ez da khambiatu,  
Eskualdun seme gira, Eskualdun gira gu.

3

Choriñoa kaiolan chori da gelditzen  
Arranoaren semek aita ez ukhatzen !  
Jaun zerukoq lagun, bat dugu eginen  
Mundu huntan ezbada bertzean bederen !

JAN-PIARRE.

## AGOUR ZIBEROUA

1

Sor lekhia ützirik gazte mintzalarik  
Parisen sarthū nintzan kourajeze betherik,  
Plazerrez gose eta bürian hartürük  
Behar niala alegera bizi  
Bostetan geroztik  
Nigar egiten dit  
Ziberoua zouri !

### ERREPIKA

Agour, Ziberoua !  
Bazter güzietako chokorik ejerrena,  
Agour sor-lekhia !  
Zouri ditit ametsik gochouenak  
Bihotzan erditik  
Bostetan elkhi deitadazut hasperena  
Zü ütziz geroztik  
Bizi niz trichterik,  
Abandonaturik,  
Ez baita herririk,  
Paris-ez bertzerik,  
Zü bezalakorik !

2

Palazio ederretan gira alojatzen  
Eta segur goratik aide freska hartzen

Gain behera soñük betzait uduritzen  
Orhi gañen nizala agitzen ;  
Bena ez dira hemen  
Bazterrak berdatzen,  
Choriak kantatzen !

3

Ametsa, lagun nezak ni Atharratzerat,  
Ene azken egunen han iragaitera,  
Orhiko choriaren kantuz behatzera,  
Pharka ditzan nik egin nigarrak  
Hots, Ziberotarrak,  
Aintzinian gora,  
Aintzinian gora  
Eskualdun bandera !

---

# EDERRENETARIK

## A M A

1

Maitatua sobera nintzelarik haurra,  
Ez nañien nik zer zen amaren beharra ;  
Bortu batean orai naiz bakar bakarra,  
Amaz orhoit orduko heldu zaut nigarra !

2

Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik  
Baitoazi choriak ohantze gozotik,  
Halaber joan ninduzun amaren altzotik,  
Ahantzia bainute herrian engoitik !

3

Bainan ama gaichoak ez nu ez ahantzi,  
Maiz daut Eskual-Herritik igortzen goraintzi ;  
Hautsi nion bihotza nuenean utzi,  
Neretzat baizik ez da halere han bizi.

4

Ene bortu gainetan baniz enheatzen,  
Gaizkirat balinbazaut bihotza lerratzen,  
Zure begi garbiez, ama, naiz orhoitzen  
Eta lanari gero kuraietkin lotzen.

5

Aho batek eztiki diolarik : Ama !  
Hitz gocho bakhar horrek mundu bat derama  
Ama baino hoberik zer ditake asma ?  
Horren maitatzen beraz gaiten oro thema.

(OXB).

## AMACHO

1

Oilarra kukuruka etchean da ari,  
Jadanikan Amacho othoitzez Jaunari ;  
Bi eskuak ikaran, so kurutzeari :  
« Jaunak beha diezon egun berriari ! »

2

Atcho zinez pollita da gure Amatto,  
Chahar izana gatik ez oraino ttontto.  
Diruz balimbad'erę pochi bat pobretto,  
Omor'onez bederen dago aberastto.

3

Igandetan ederrik, iduri pampina,  
Zinez erran liteke : « Horra Erregina ! »  
Begia irriz dago, halaber ezpaina :  
Oi zer atcho pollita, Jainkoak egina !

4

Buru sahetsetikan motto-buztanduna,  
Lepho-gibel aldean mokanes urdina.  
Balenarik gabeko soineko fin fina,  
Zaiaño bat pollita ber'eskuz egina.

5

Oi amacho maitea, agian luzachko,  
Jainko Jaun onak zaitu gurekin utziko !  
Ainitz urthez, agian, zaitu ahantziko !  
Luzaz, agian luzaz gaituzu zainduko !

(BARBIER).

## IKUSTEN DUZU GOIZEAN

1

Ikusten duzu goizean,  
Argia hasten denean,  
Menditto baten gainean :  
Etche ttipitto, aintzin churi bat,  
Lau haitz ondoren erdian,  
Chakhur churi bat athean  
Ithurriño bat aldean  
Han bizi naiz ni bakean.

2

Nahiz ez den gaztelua,  
Maite dut nik sor-lekua  
Aiten aitek hautatua.  
Etchetik kampo zait iduritzen  
Nombeñ naizela galdua ;  
Nola han bainaiz sorthua,  
Han utziko dut mundua  
Galtzen ez badut zentzua.

3

Etchean ditut nereak,  
Akilo, haitzur, goldeak,  
Uztarri eta hedeak.  
Jazko bibiez, ditut oraino

Zoko guziak betheak :  
Nola iragan urtheak  
Emaiten badu bertzeak  
Ez gaitu hilen goseak

4

Landako hirur behiak  
Esnez hampatu ditiak  
Ahatche eta ergiak,  
Bi idi handi kopeta zuri,  
Bizkar beltz, adar handiak,  
Zikiro, bildots guriak,  
Ahuntzak eta ardiak,  
Nereak dire guziak.

## URRUNDIK IKUSTEN DUT

1

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia,  
Beraren gibelean baitut nik herria ;  
Jadanik dut aditzen (zorion handia !)  
Ezkila maintearen hasperen eztia.

2

Ezkila, zer othe duk hik egun erraiten ?  
Urrunera zer berri othe duk igortzen ?  
Mendiek hedoipetik dautek ihardesten.  
Hik errana zerura ditek helarazten.

3

Mendiak utzi ditut urrun gibelean,  
Herria dut ikhusten jadanik aldean,  
Zer duk, ene bihotza, saltoka barnean ?  
Othe duk huts eginen herrira heltzean ?

4

Agur, agur, herria ! Agur, sor-lekhua !  
Agur, nere haurreko lekhu maitatua !  
Jainkoak aditurik haur baten oihua,  
Hiri gana duk haur bat hurbildua.

5

Bainan nere begitik nigar bat da jausten ;  
Bozkarioak darot bihotza gainditzen ;  
Etchekoen boza dut jadanik aditzen.  
Jainkoa, darozkitzut eskerrak bihurtzen !

## ORHIKO CHORIA

1

Orhiko choria Orhin bakhean da bizitzen,  
Bere larrę sasietan ez da hura unhatzen.  
Han zen sorthu, han handitu, han ari zen maithatzen,  
Han bere umen artean, gozoki du kantatzen

2

Urusa harek bezala egiten dakiена !  
Orhin sortu eta Orhin gazte zahartzen dena !  
Aditzez baizen ez daki zer den kampoko ona,  
Bainan aldiz jastatzen etcheko zorionta.

3

Etchean pena guziak dirade kontsolatzen ;  
Etchean zauri minenak noratbeit ere hesten,  
Irriak, solas gozoak, non dirade han baizen,  
Gau-aldera familia denean bateratzen ?

4

Familiako bizia, zein zaren plazersua !  
Zutaz gabetua dena zertaz da gabetua ?  
Ume-zurtza baten pare dabila herratua,  
Ezin bere bihotzaren aurkhituz sosegua.

5

Beraz gutarik bakhetcha etchean egon dadin,  
Orhin sorthu balimbade, egon dadieña Orhín !  
Zertako hainbertze urhats zorionketa egin ?  
Etchean du zoriona nork berak berarekin !

## AITAK EMAN ZERAUTAN

1

Aitak eman zerautan zerurat joaitean  
Enetzat mahastia artzeko lanean ;  
Artha nezala,  
Aitak bezala  
Aitzur eta jorra  
Laguntzat hor nuela... sotoko ophorra.

2

Mahastian choriek goiz dute kantatzen,  
Orduan bozkarioz lanari naiz lotzen ;  
Gero zait hasten  
Bihotza hozten  
Agortzen zintzurra,  
Laster dut eskuratzten... sotoko ophorra.

3

Ez dut hiritar gisan gosari ttikia :  
Bichkotchatto batekin edari bichia.  
Nik dut ogia,  
Achal gorria,  
Bai gasna gogorra  
Eta arno churitik... Sotoko ophorra.

4

Igandetan debotki meza dut entzuten,  
Gero lagun onekin plazetan jostatzen.

Han dut aditzen,  
Nitaz erraiten  
“ Zer muthil gotorra !  
“ Ez ahal dik hastio... sotoko ophorra ».

5

Gorphutza baitut sano, arpegia gorri  
Hortako dute nitaz zerbait erran nahi  
Bainan ez naiz ni  
Nihoiz ibili  
Oraino moekorra,  
Izanagatik maite... sotoko ophorra.

## MICHELENGO ZUBIA

1

Michelengo zubia, zubi famatua,  
Arraintzariendako toki hautatua :  
Haize-hegoak han du azkarra chichtua,  
Chapelaz tratua.

2

Hameka orenetan, oraino barurik,  
Zubi harten arraintzan ari nintzelarik,  
Arrain bat naukalarik amuan lothurik,  
Haizeak ereman daut chapela burutik...

3

Aphezari burutik chapela kentzia  
Barkhatu erran gabe, hoi duk ausartzia !  
Hegoa erho zela nian aditzia...  
Noiz ikhasi-gogo duk zer den zuhurtzia ?

4

Aphezen chapelari aski aiher denik  
Baduk bai mundu huntan haizeaz bertzerik ;  
Kentzen ahal baluzte hik bezain ichilik,  
Ez ginezakek ibil buruan chapelik,  
Buruan chapelik.

## MAKILA

1

Begistatua nuen aspaldi mendian  
Mizpir ondo chuchen bat sasien erdian :  
Handitzerat utzi dut eta harekila  
Aurten egin dut nere... Eskualdun makila (*berriz*)

2

Bi erroten gainean joaiten ez ikasi,  
Burdin bidetan, aldiz, sabela nahasi.  
Bainan nun dut karrosa ? Nun dut beribila ?  
Oinez beti banoa... eskuan makila. (*berriz*)

3

Igandetan goiz-goiza, chamarra emanik,  
Etcheko andreari agur bat erranik,  
Entzun eta oihuka dorreko ezkila  
Ni banoa harturik... eskualdun makila (*berriz*)

4

Nere sakelak nahiz ontsaño miatu  
Jin zait behin gizon bat... bainan zer gertatu ?  
Segurki eztu erran bater'ez nakila  
Ibiltzen eskuetan... eskualdun makila. (*berriz*)

5

Jaunak atchik nezala luzezkî munduan,  
Bai eta gero bethikotz zeruan.  
Orduan, haur maiteak, othoi nerekila  
Emazue habian... eskualdun makila.

## SOLFÉRINOKO ITSUA

1

Harmen hartzera deitu ninduen  
Gazterik zorte etsaiak,  
Urrundu nintzen, herri alderat  
Itzuliz usu begiak. (*berriz*)

2

Zorigaitzean baitut ikusi  
Solférino-ko hegia!  
Alferrikan dut geroztik deitzen  
Iguzkiaren argia. (*berriz*)

3

Bethiko gaua, gau lazgarria!  
Begietara zaut jautsi:  
Ene herria, ene lagunak  
Nihoiz ez behar ikusi! (*berriz*)

4

Ene herrian, gazte lagunak  
Kantuz plazara dohazi,  
Eta ni beltzik, etche zokoan...  
Irri egiten ahantzi! (*berriz*)

5

Ai, aski hola! Jainkoa, barkha!  
Begira zure haurrari,  
Kontsolamendu zerbeit emozu,  
Noizbeit duzun urrikari! (*berriz*)

## GOIKO MENDIAN

1

Goiko mendian elhurra dago,  
Errekaldian izotza  
Ene Aberri maiteak  
Harturik dautak bihotza.  
Goiko mendian elhurra dago,  
Errekaldian izotza.

2

Ithurri ona ttipi ditake,  
Ez da sekulan agortzen ;  
Bihotzak, ez du hartuta  
Amodiorik ukatzen.  
Ithurri ona ttipi ditake,  
Ez da sekulan agortzen.

## CHORINOAK KAIOLAN

1

Choriñoak kaiolan  
Tristerik du kantatzen,  
Duelarik han zer jan, zer edan,  
Kampua du desiratzen,  
Zeren, zeren  
Libertatia zoiñen eder den !

Hik, kampoko choria,  
So'giok kaiolari,  
Ahal balin bakedi  
Hartarik begir'adi  
Zeren, zeren  
Libertatia zoiñen eder den!

## KAIKU

Neure andrea andre ona da,      }  
Gobernu ona du hauzuan ;      } berriz  
Hartzen duelarik bere alaba,  
Mari-Kattalin altzuan :

Ai zazu :

Zer nah'uzu !

Gero're horrela munduan ere,

Biak biziko gerare gu,

Baldin bazera kontentu. (*berriz*)

Nik bethi freskotchorik tabernakua

Sototchuan deraukat arno gozua.

Ai! zer kontentu! ai! zer alegre!

Eskaintzen dautzut, neure maitia,

Arroltzetchuak eta kaiku esnia. (*berriz*)

Kaiku (6 aldiz) esnia,      }  
Arroltzetchuak eta Kaiku esnia.      } berriz

## BOGA

Boga, boga, mariñela! mariñela!  
Joan behar degu urrutira, urrutira,  
Bai Indietarat. (*berriz*)  
Ez det (*berriz*) nik ikusiko  
Zure plai ederra, plai ederra!  
Agur, agur Ondarroa-ko itsaso bazterra.  
Mariñela  
Boga!  
Mariñela!

## JEIKI, JEIKI!

Jeiki, jeiki, etchekoak, argia da zabala  
[argia da zabala!  
Itsasotik mintzatzen da zilharrezko adarra,  
Bai etaere ikharatzen Olandresen ibarra,  
[Olandresen ibarra!

## AGUR JAUNAK

Agur, jaunak!  
Jaunak, agur! } *berriz*  
Agur t'erdi... }  
Jaun Goikoak eginak gire,  
Zuek eta bai gu ere... }  
Agur, jaunak... } *berriz*  
Jaunak, agur!  
Hemen gire...  
Agur, jaunak!

# KURRITZEKO

---

## AHUNCHKI MENDIAN

### ERREPIKA

**Kanta zagun airetto hau orok betan,**      }  
**Kanta zagun guziek errepiketan!**      } berriz

1

Goazen oro Ahunchkira,  
Goazen ithurrrira,  
Goazen guziak mendira,  
Harbiribilera!

2

Hedoien artetik guri  
Jali zauku Orhi;  
Ahune egizak irri,  
Orratz bat iduri.

3

Heldu dira hor artzainak,  
Chuberotar onak:  
Huna hein irrintzinak,  
Zinka ozenenak!

## IRUNEKO FERIETAN

1

Iruncko ferietan, iragan San Ferminetan,  
Ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan,  
Merkhatu eder bat zautan, zaudelarik bi lerrotan.

2

Bat zen pikarta churia, hartan bota dut begia.  
Andaluzak egin zautan bi untza urrhe galdia,  
Eskain orduko erdia, « hartzak, hire duk zaldia ».

3

Han nintzen arrapatua, aginduaz dolutua:  
Urruntzeko izan banu hirur arditen lekhua,  
Gizonez inguratua, iduri preso hartua.

4

Zeruko Jainko Jaun ona, zerk ekharri nu ni huna?  
Andaluz bat zazpi urthez presondegian egona,  
Laburzki mintzo zautana: « konda niri hitzemana ».

5

Eman orduko khondua, eztitzen hasi mundua.  
Garistutik hartu nuen delako behor mainkua,  
Emanik behar dirua, hustu bainuen lekhua.

6

Utzirik bide ẽderra, hartu dut oihan bazterra.  
Zaldia nuen desferra, begi batetik okherra,  
Usu soinatzen kitarra, eztularekin uzkerra.

7

Nunbaitik argi aldera arribatzen niz etchera.  
Nere andrea ethorri argiarekin athera,  
Jarri behorrari beha, ez baitzen kontent sobera.

8

“ Horiche da behor tcharra, eta bertzalde chaharra !  
Hortan gastatu dautazu familiako beharra ?  
Bi sosetan sal nintzazke zaldia eta senharra ! »

9

Plazan zutenean ikusi, nahi zautaten erosi.  
Tratuan bainitzen hasi, ez zuten emaiten aski.  
Ez nuen eskutik utzi, ume bat behar du hazi.

## JANTZARIAK

1

Igandia jin denian,  
Oinak arin bidian,

Soinia nun den jakinez geroz, harat joiteko abian  
(*berriz*)

2

Astelehen goizian  
Ezin jeikiz oihiban

Sobera janzan arizanik, bezpera arratsaldian. (*berriz*)

3

Astearte goizian

Nausia khechu etchian,

Ferretak hutsik hatzemanik, urrik gabe sukaldian.

(*berriz*)

4

Asteazken goizian,

Min bainien burian,

Artho jorran artzeko orde, jarri nintzen itzalian.

(*berriz*)

5

Osteun goiz goizian,

Zoin gohor jeikitzian,

Gogua ilhun nien segur, churiketak churitzian.

(*berriz*)

6

Ortzirale goizian,

Etchetik jalitzian,

Nigarrak heldu zitzauzkitan, igandiaz orhoitzian.

(*berriz*)

7

Larumbate goizian

Labiaren aintzinian

Jatekuen untsa iteko, min nien aztaparrian. (*berriz*)

8

Bai bainan igandian,

Oinak arin bidian,

Soinia nun den jakinez geroz, pena guziak airian!

(*berriz*)

## INTCHAUZPEKO ALABA

1

Intchauzpeko alaba dendaria  
Goizian gozik jostera joilia:  
Nigarretan pasatzen du bidia  
Aprendiza kontsolazailia.

2

Mertchikaren floriaren adarra  
Barnian dizu hechurra gogorra  
Gaztia niz, bai eta loriusa,  
Ez dut galtzen zure esperantcha.

## CHURIKO

1

Mehetegiko chakhurra  
Zangoz, errainez makhurra,  
Berga bat luze muthurra,  
Larrutik hurbil hezurra,  
Urthe guzia barura,  
Zeren den toki chuhurra.

2

Amak ttikitik utzia,  
Esnérik gabe hazia,  
Tripa errainer josia,  
Uliek jaten hasia ;  
Churikok bere bizia  
Hola derama guzia.

3

Mahainpetik kokoriko,  
Begira dago Churiko  
Artho achaltto bat noizko  
Othe zaion eroriko.  
Nausiak ematen daizko  
Doan hortik bi ostiko.

4

Chakhur gaichoa holakoz  
Merke ase zutelakotz,  
Tripa hutsik, ilhun gogoz,  
Pleinuz zagon egun oroz ;  
Hatzka zangoz eta besoz  
Nihun ez zauken kukusoz.

## BIDARRAITARRA

1

Mila zortzi ehun eta hemeretzian,  
Urriaren hilharen bederatzian,  
Omore ona nuien hauien kantatzian:  
Gazte eta alegera, trankil bihotzian.  
Ontasuna frango badut intresian,

Deusik ez etchian  
Orai bezain aberats nintzan sortzian.

2

Nor nahik zer nahi erranikan ere,  
Bidarraitarra nuzu, bai, nahi ere,  
Etcheko seme ona, segurki halere,  
Nahiz baden herrian hobechagorik ere.  
Baditut bortz haurride, enekin sei dire,  
Oro adichkide,  
Dotiaren gainetik samurturen ez gire.

3

Hemen bagirade orai zenbait lagun,  
Botoila bana arno edan dezagun.  
Lehenik ona denez jasta dezagun,  
Trinka dezagun, plazer har dezagun,  
Bilha zenbait lagun :  
Diru dianak izanen dik ezagun.

## ITHURRIRA GOIZEAN

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,  
Urera joan ninduzun, pellarra harturik.

Tralera lala...

2

Jaun chapeldun gazte bat jin zautan ondotik,  
« Heia nahi nuenez urerat lagunik ».

Tralera lala...

3

Nik « Ez nuela nahi urera lagunik,  
Aita beha zagola salako leihotik ».

Tralera lala...

4

Aita beha zagola, ezetz-erran gatik,  
Pellarra joan zerautan, besotik harturik.

Tralera lala...

## IRAGAN BESTA BIHARAMUNIAN

1

Iragan besta biharamunian  
Berek dakiten choko batian  
Lau andre, hirur mutchurdin, bat alarguna, jarriak  
Harri chabal bat belhaunen gainean, [itzalian,  
Hari ziren hari ziren trukian.

2

Zer othe duten nik jakin nahi  
Pitcharrarekin bertze jaun hori

Zorroa du biribila, moko mehea, tente chutik egoki.  
Chahako bat othe den nago ni  
Hampatua, hampatua ederki.

3

Handik chimiko, hemendik irri,  
Haurrak bezala jostetan hari.  
Gogotik emaiten dute begi kolpe bat hegaldun pean  
Hitz bat erran gogo diote sarri [denari,  
Beharrirat beharrirat kuiari.

4

Gezurrik gabe goazen, Maria,  
Eman jokoan ezti eztia.  
Hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan trago bat  
Bihotza dinat epheltzen hasia. [edo bia,  
Harek zuen, harek zuen grazia!

5

Nahiz zeraukan azken eskua,  
Mariak zuen hasi gudua.  
« Truk. — Jo zan. — Mariak chango, Katichak chal-  
dun, Marichunek hirua.  
Mari-Martin, choratu zain burua,  
Lauarekin hiruaren keina! »

6

Kartak utzirik eta tantoak,  
Han zituzten han gero saltoak.  
Bakharrik hiruen kontra, zer eginen du Mari-Martin  
Nahiz izan azkar zango besoak, [gaizoak!  
Hartu ditu, hartu ditu paloak.

## EUZKO

Euzko  
Euzkotarrak gira  
Eta maite dugu  
Aberria Eskual-Herria  
Aufa mutilak, maita dezagun Euzkadi      } berriz  
Azkatasuna emanez guri.

## IRUTEN ARI NUZU

1

Iruten ari nuzu, khilua gerrian,  
Ardura dudalarik (*berriz*) nigarra begian.

2

Jendek erraiten dute hal'ez dena frango,  
Eta partikulazki (*berriz*) zur'et'enetako.

3

Nigar egiten duzu, oi suspirarekin  
Kontsolaturen zira (*berriz*) oi demboratekin.

## INAKI

Iñaki,  
Jainkoak igorria  
Lurrean izaitera  
Jesusen  
Gudarien  
Burua!

Biltzarrak  
Hartu zaitu  
Begirale  
Saindutzat!

Zu zira  
Nausi lehen  
Hoberena  
Guretzat!

Iñaki,  
Othoi entzun gaitzatzu  
Eta beira gaitzatzu.

Bai denek  
Eskualdunek  
Hari gure  
Bihotzak  
Harrena da  
Herria,

Ibai-oihan  
Mendi-gora!  
Zerutikan,  
Saindu-on.  
Atchik ba  
Zazpiak!

Atchik-azu  
Jaun-goikoa  
Eta lege  
Lehengoa.  
Etsaien garraitzeko,  
Zuk mana  
Eskualduna!

Guduan sarturik  
Ezpata eskuan  
Eskualdunen alde  
Zeruko indarraz  
Zuk begiraturik,

Eskual-Herria  
Dohatsu izanen da,  
Zuk, Iñaki,  
Zaindua!

# HAUR KANTU

---

## KINKIRI-KUNKURU

1

Erran dut erranen et' errango  
Ez naiz ichilik egongo :  
Plaza kuntako dama gazteak  
Ez dira monja sartuko.

### ERREPIKA

Ala kinkiri, ala kunkuru  
Ala kinkiri kunkuru kanta,  
Ala kinkiri kunkuru kanta,  
Gu bezalakoak dira, hola !

2

Erran dut, erranen et' errango  
Ez naiz ichilik egongo:  
Plaza kuntako gizon gazteak  
Ez dira fraide sartuko.

## NEURE DOTEA

1

Aitak eman daut dotea  
Neurea, neurea: } berriz  
Urdeño bat bere umekin  
Oilo koloka bere chitoekin,  
Tipula korda heiekin.

2

Neurea, neurea,  
Otsoak jan daut urdea } berriz  
Acheriak oilo koloka,  
Garratoinak tipula-korda:  
Adios neure dotea!

## PIPA HARTU' TA

1

Pipa hartu' ta choratzen naiz,  
Arno edan-ta mochkortzen naiz,  
Mochkortu eta erortzen naiz:  
Nola demuntre biziko naiz?

2

Hamar botoila chankraturik,  
Azken basoa klikaturik,  
Azken chirrichta iretsirik,  
Moltsa deraukat tturrindurik.

3

Urrundu zaizkit aichkideak,  
Eta hurbildu ostalerrak;  
Etchean aldiz emazteak  
Prest-presta ditu erasiak.

4

Muthiko gazte ta leiala,  
Kontseilu onak har zaitzula;  
Othoi bizian ez zaitela  
Sekulan mochkor ni bezala!

## NERE MANDOA

1

Nik erosi dut mando zahar-zahar bat,  
Pagatu baitut asto bat eta joar'zar bat:  
Nere mandoa!

## ERREPIKA

**Abere gaichto  
Dirurikan  
Askorikan  
Gostarik  
Pagaturikakoa,  
Nero mandoa!**

2

Nere mandoak jaten dizi garagar,  
Hura jan-eta egiten baitu far-far-far:  
Nere mandoa!

3

Getharian kargatu nuen arrañez,  
Nere arrañer nehor ezin 'hurrant urriñez:  
Nere mandoa!

## ALDAPEKO

1

Aldapeko sagarraren adarraren puntan,  
Puntaren puntan,  
Choria dago kantari.  
Chiruli-ruli, chiruli-ruli,  
Nork aditzen othe du kantu eder hori?

2

Zubiburu zelaieko oihanaren zolan,  
Zolaren zolan,  
Lilibat bāda beilarri!  
Chiruli-ruli, chiruli-ruli,  
Nork bilduko othe du lili charmant hori?

## BUBA, NINANO

Buba, ñiñaño,  
Haurra dugu ñimiño,  
Nimiño eta gaichtoño,  
Eta bubaño,  
Haurra dugu ñimiño,  
Nimiño eta gaichtoño.

## BULUN BAT

Bulun bat eta bulun bi,  
Bulun urerat erori.  
Erori bada erori,  
Ez da gehiago ageri.  
Bulun bulun buluna,  
Gero duzu muñuña,  
Bulun bulun bulun buluna.

## HAURTCHOA SEASKAN

1

Haurtcho ttipia seaskan dago,                            berriz  
Zait iduri aingerua lo:                                    berriz  
Ene maitia, ene pottolo                                    berriz  
Eginaguzu lo!

2

Chakur handia ethorriko da                            berriz  
Zuk ez baduzu egiten lo:                                    berriz  
Horrena gatik, ene pottolo,                            berriz  
Eginaguzu lo!

## ICHIL ICHILIK DOHA

1

Ichil ichilik doha itsaso gainean  
Untzi churi pollita hegalak airean.  
Furrust, farrast kantatzen uhainek ondoan,  
Mariñela gogoeta etchea gogoan.

2

Untzi churi pollita norat hoa hola ?  
Zertako haiz urruntzen utzirik etchola ?  
Han zagok hire ama bethi ikharetan,  
Noiz geldituko zaion semea urean.

3

Untzi churi pollita, itsaso garbian  
Fidantziaz bethea badoha punpeketan  
Itsaso maltzurrari, othoi ez ba fida  
Haren gochotasuna maiz da tronpakorra.

## BASERRITARRAK

1

Baserritarrak gera gu  
    EZ dezakegu ukatu,     { berriz  
Bañan hiritarrak besañ ongi (*berriz*)  
Soinua (*hiruetan*) jotzen degu.  
**Tralera...**

2

Mundu hunetan bi gauza  
    Nik maite ditudanak :     { berriz  
Ardotcho-tcho-tcho-tchuri eta (*berriz*)  
Ogi mami (*hiruetan*) biguna.  
**Tralera...**

## ITSASOA LANO DAGO

1

Itsasoa laño dago  
Baionako barraraino:  
Nik zu zaitut maiteago  
Choriak bere umiak baino.

2

Afaria suan dago  
Bero-beroa sarridino:  
Nik zu zaitut maiteago  
Egur onak sua baino.

3

Izar churiz mila dago  
Iparretik hegoino:  
Nik zu zaitut maiteago  
Ilargiak gaua baino.

4

Lo egizu, egizu lo,  
Deskantsuan, bihar artio:  
Nik zu zaitut maiteago  
Gau beltzean loa baino

## CHO, CHO

Chakurrak « hau »!  
Gatiak « ñau »!  
Arnoak huntarat ekarri nau.  
Etchean sartzean,  
Andrea koleran,  
Anglesa golkoan,  
Latina mihian,  
Eskuaraz mintzatzen:  
« Urde alfer tzar gizon kiskila,  
Nun egon hiz gaur? »  
— « Cho, cho, Maríaño,  
Mochkorra jína nun gaur. » { berriz

# DANTZA PIKOAK

## HEGI

### Garazi

BIETAN :

pika, ebats.

LAUETAN :

pika, pika, ebats.

LAUETAN :

erdizka.

BIETAN :

jo, erdizka,  
dobra, erdizka.

### Amikuze

BIETAN :

biga, ebats.

LAUETAN :

biga, biga, ebats.

LAUETAN :

chimble.

BIETAN :

pika, chimble,  
pika, akabo.

## OSTALERTSA

### Garazi

LAUETAN :

erdizka.  
jo, erdizka, dobla,  
erdizka.  
ezker, eskuin, ezker  
eta hiru.

BIETAN :

erdizka,  
eskuin, ezker, eskuin  
eta hiru.

BIETAN :

erdizka.

### Amikuze

LAUETAN :

chimble.  
pika, chimble, pika,  
akabo.  
ezker, eskuin, ezker  
eta hiru.

BIETAN :

chimble.  
eskuin, ezker, eskuin  
eta hiru.

BIETAN :

chimble.

## ZAZPI JAUZIAK

### Garazi

LAUETAN :

erdizka.

LAUETAN :

jo.

### Amikuze

LAUETAN :

chimble.

LAUETAN :

pika.

## **ZEINA**

### **Amikuze**

**LAUETAN :**

zeina, ebats, ebats,  
zeina, ebats, ebats,  
pika, biga, chimple, biga.

**LAUETAN :**

zeina, ebats, ebats,  
zeina, ebats, ebats,  
jo, pika, erdizka, pika.

**BIETAN :**

pika eta hiru, chimple  
eta hiru eskuin.

**BIETAN :**

jo eta hiru, erdizka  
eta hiru eskuin.

**BIETAN :**

ezker, eskuin, ezker eta hiru,  
eskuin.  
chimple eta hiru, eskuin.

**BIETAN :**

esker, eskuin, ezker  
eta hiru, eskuin.  
erditzka eta hiru, eskuin.

## MAYENA

### Amikuze

LAUETAN :  
pika eta hiru, chimple  
eta hiru,  
pika eta hiru, akabo.  
chimple.  
zeina, ezker, eskuin.  
chimple eta hiru.  
zeina, eskuin, ezker.  
akabo.

### Garazi

LAUETAN :  
jo eta hiru,  
erdizka eta hiru,  
dobra eta hiru, erdizka  
eta hiru, erdizka.  
zeina, esker, eskuin.  
erdizka eta hiru.  
zeina, eskuin, ezker.  
erdizka eta hiru.

---

## AHUNTCHA

### Amikuze

LAUETAN :

chimble.  
pika eta hiru, chimble,  
pika eta hiru, akabo.  
ezker, eskuin, zabla,  
chimble.  
ezker, eskuin, zabla,  
akabo.

### Garazi

LAUETAN :

erdizka.  
jo eta hiru, erdizka,  
dobra eta hiru, erdizka.  
ezker, eskuin, zabla,  
erdizka.  
eskuin, ezker, zabla,  
erdizka.

---

## CHARMANTINA

### Amikuze

BIETAN :  
biga, luze eta ebats.

BIETAN :  
pika, chimple, biga, luze  
eta ebats.

BIETAN :  
chimple eta hiru, eskuin.

BIETAN :  
pika, chimlpe eta hiru,  
eskuin.

BIETAN :  
biga, chimple, biga, akabo.

BIETAN :  
pika, chimple, eskuin, esker,  
eskuin, ezker, akabo.

### Garazi

BIETAN :  
pika, luze eta ebats.

BIETAN :  
jo, erdizka, pika, luze  
eta ebats.

BIETAN :  
erdizka eta hiru, eskuin.

BIETAN :  
jo, erdizka eta hiru, eskuin.

LAUETAN :  
pika, erdizka.

BIETAN :  
jo, erdizka, eskuin, ezker,  
eskuin, ezker, erdizka  
eta hiru,

LAUETAN :  
jo eta hiru.

LAUETAN :  
erdizka.

LAUETAN :  
pikta eta hiru.

LAUETAN :  
chimple.

BIETAN :  
ezker, eskuin, ezker  
eta hiru,  
erdizka eta hiru.

---

BIETAN :  
ezker, eskuin, ezker  
eta hiru,  
akabo.

## MUTCHIKOAK

### Garazi

### Amikuze

LAUETAN :

pika.

BIETAN :

pika eta hiru.

BIETAN :

erdizka, dobla, erdizka  
eta hiru.

BIETAN :

chimble, pika, akabo.

BIETAN :

erdizka, dobla eta hiru,  
erdizka.

BIETAN :

chimble, eskuin, ezker  
eta hiru,  
akabo.

LAUETAN :

erdizka.  
jo, erdizka, dobla, erdizka.  
ezker, erdizka.  
lau urhats aintzin.

LAUETAN :

chimble,  
pika, chimble, pika,  
akabo, ezker, akabo.  
lauetan aintzina.

LAUETAN :

pika, erdizka.

BIETAN :

pika, ezker, pikka, erdizka.  
BIETAN :  
erdizka, dobla, erdizka  
eta hiru.

BIETAN :

biga, chimple, biga, akabo.

BIETAN :

biga, ezker, biga, akabo.

BIETAN :

chimple, pika, akabo.

LAUETAN :

erdizka.  
jo, erdizka, dobla, erdizka.

LAUETAN :

chimple.  
pika, chimple, pika, akabo.

BIETAN :

chimple, pika, akabo.

LAUETAN :

erdizka.  
jo, erdizka dobla erdizka

chimple.  
pika, chimple, pika, akabo.

LAUETAN :

erdizka.

LAUETAN :

chimble,  
pika eta hiru, chimble, pika  
eta zabla, akabo.

BIETAN :

jo eta hiru, erdizka, jo eta  
hortz, erdizka.

LAUETAN :

erdizka.  
jo, jo eta hiru, erdizka,  
dobla eta hiru, erdizka, jo.

LAUETAN :

erdizka.

BIETAN :

jo, erdizka, dobla, eskuin  
esker, erdizka.

LAUETAN :

chimble,  
pika, pika eta hiru, chimble,  
pika eta hiru, akabo,  
pika eta fini.

# AURKhibidea

---

## KANTU CHARAMELAK

Eskualdun Choria.....	5
Gazte Eskualduneri .....	6

## HERRIAREN ALDE

Gernikako arbola .....	8
Haurrak ikas-azue .....	9
Gazte gazte joan nintzan.....	9
Eskual-Herria .....	10
Sor dekua .....	11
Agur Bachenabarre .....	12
Agour Ziberoua .....	13

## EDERRENETARIK

Ama .....	15
Amacho .....	16
Ikusten duzu goizean.....	17
Urrundik .....	19
Orhiko choria .....	20
Aitak eman zeraután .....	21
Michelengo zubia .....	23

Makila .....	24
Solferinoko itsua .....	25
Goiko mendian .....	26
Choriñoak kaiolan .....	26
Kaiku .....	27
Boga .....	28
Jeiki, jeiki .....	28
Agur jaunak .....	28

## KURRITZEKO

Ahunchki mendian .....	29
Iruñeko ferietan .....	30
Jantzariak .....	31
Intchauzpeko alaba .....	33
Churiko .....	33
Bidarrraitarra .....	35
Ithurrira goizean .....	36
Iragan besta biharamunian.....	36
Euzko .....	38
Iruten ari nuzu .....	38
Iñaki .....	39

## HAUR KANTU

Kinkiri kunkuru .....	40
Neure dotea .....	41
Pipa hartu' ta .....	42
Nere mandoa .....	43
Aldapeko .....	44

Buba niññaño .....	44
Bulun bat .....	45
Hautchoa seaskan .....	45
Ichil ichilik .....	46
Baserritarraak .....	47
Itsasoa lano dago.....	47
Cho, cho .....	48

### DANTZA PIKOAK

Hegi .....	49
Ostalertsa .....	50
Zazpi Jauziak .....	50
Zeina .....	51
Mayena .....	52
Ahuntcha .....	53
Charmantina .....	54
Mutchikoak .....	56

---

---

---

IMPRIMERIE COMMERCIALE  
11, Rue Maréchal-Joffre, 11  
Pau. O. P. L. 31.2643

---

